

Aretxabaleta,
1992ko ekainak 4

Aretxagazeta



Andoni Europako txapeldun

- *Degurixa garbiketako kanpaina.*

- *Atxabaltartua: Jose M^a Sarasua.*

- *Deba garaiko olinpiadak.*

7 zka.



Gure herria, lanpostu aukera haundiak sortzen eta garatzen jakin duten industriak oinarritzat hartuta bizi izan da hamarkada bitan gutxienez, eta

Ez da munduan herririk herritarren arteko elkarnerako giro barik aurrera egiten duenik.

Aurrera egiteko konfidantza beharrezkoa da

edozein egoerari aurre egiteko moduko formula lortuta geneukala uste genuen.

Baina Europako Komunitatean sartu garenetik esparru zabalagoan mugitu beharra daukagu orain.

Azken urteotan, Institutuzioek bultzatutako iniziatiba berriak ikusi ditugu sortzen, aukera gehiago sortuaz joan direnak. Iniziatiba horiek askori erakutsi diote lanpostu eta enpresa arazoan irtenbidea lortzeko, euren ahaleginen aldeko konfidantzazko apostua egiteko prest egon behar dutela; jakina, beharrezkoak diren teknika

eta ezagutzaz.

Hala ere, enpresa inportanteenak dira lanpostu gehienak eskaintzen dituztenak eta aukera berrien sortzaileak. Horrela, enpresa horien inguruan, iniziatiba berriak sortzen dira.

Gutako askok nahiko enpresa haundietan lan egiten dugu. Berorietan ere enpresa izpiritua edo iniziatiba lantzea beharrezkoa da.

Gure etorkizuna beti lotuta joango da kalitatezko produktuak eskaintzen jakitearekin; harro sentitu gaitzen geure produktuekin, benetako profesionalen moduan.

Guzti horrek konfidantzazko jarrera hartzea eskatzen du. Hori lortu ahal izateko elkarrenganako konfidantza izan behar dugu, eguneroko lanera egokitze beharrezko formazioa eta trebakuntza eskuratu behar dugu; eta batez ere, oso kontutan hartu, ez dela munduan herririk herritarren arteko elkarlanerako giro barik aurrera egiten duenik. Beraz, prest egon gaitzen proiektu amankomun batean lan egiteko. Elkarlanaren behar hori gero eta nabarmentzen da gainditu beharreko eragozpenak haundiagoak direnean.

Jesus M^a Herrasti
FAGOREko
Lehendakaria.

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-konseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Agurtzane Elkoru, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko?




Iñigo Kortabarria
(ikaslea)

Atxabaltarako jai gehiago eskatuko nuke. Kiroletan ere txapalketa gehiago, orain ere badaude, baina denak uda aldera hasten dira, neguan ez da ezer egoten.



Josu Otxoa
(ikaslea)

Trikitulari falta dago hemen. Jendea domeka eta zapatuetan, orain, plaietan egoten da, ez dago jai girorik.



Maite Errasti
(langilea)

Nik umeak zaintzen ditut, eta iruditzen zait, umeentzako parke eta kolunpio gutxi daudela. Umeek jolastu dezaketen leku bakarra plazan edo goiko plazoletan da.



Agustina Guisado
(langilea)

Umeak egoteko leku gutxi dago eta kotxeak ibiltzeko bide ugari. Atxabalta moduko herri batean parke bat beharrezkoa da. Industrialdea aurrean, txaleta dagoen lekuan, nik uste dut parke bat egiteko erabili daitekeela.

KARTAK

Sauna konpondu beharra

Astean behin sauna-joatea gustatzen zaidan horietako bat naiz. Hasiara batean gutxi batzuk ginen bertan elkartzen ginenok, baina jendea probatu eta gero animatuz joan zen eta gaur egun badaude, fijoak kenduta, bi astean behin saunatik pasatzen den talde majo bat.

Geroz eta jende gehiago joaten dela kontutan hartuta, obratxo

bat egitea komenigarria ikusten dut.

Lehendabizi gano-razko aldagelak egin; txarto pasetan dut jendea kuleroak edo kant-zontziloak jantzi nahian "ikustean" kortina zahar baten atzetik, kortina jausiko ete den beldurrez.

Bigarrenik beste dutxa pare bat ipiniko nuke edo behintzat dauden bietatik bat konpondu.

Sauna egin zenetik, ezkerreko dutxak ez du ondo funtzionatu. Kale-fakzioa ere absurdoa badirudi, derrigorrezkoa iruditzen zait. Saunatik urten eta kriston hotza pasatu behar izaten dugu egurreko ohetan etzanda.

Agian momentu egokia da horrelako obrak egiteko, uda gainean daukagunez, leku freskoagoak gurago iza-

ten ditugu eta..

Sauna zale bat

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitzete.



Enkarteladak

Kanariar irletan da-
goen Salto del Negroko
espetxeko euskal presoak
ia berrogei eguneko gose
greba eta astebeteko
egarri greba egin dute.
Hori dela eta, egunero
arratsaldeko 7,30etan

enkarteladak egin di-
tuzte.

Era berean, joan zen
eguenetik eguakotxe-
rarte Eskoriatzako
irakasle eskolako ikas-
leak itxialdi bat egin zu-
ten.



Degurixan garbiketa kanpaina

Murruxiko, Besaide
eta Eskoriatzako elkar-
teek antolatuta, datorren
domekan 14ean, Degu-
rixan kanpaina garbika-
ta egingo da. Bertara
joan gura duenak, goi-
zeko 8etan betikolekutik
urtengo dute.

Beste urte batzuetan
ere egin da, baina aurten
antolatzaileek esan di-
gutenez, ikarragarritzko-
zikinkeria dago. "Aste
Santuetan eta San Jose
zubia pasetan 15-18 ur-
teko neska-mutil asko
egon dira bertan, eta
orain lotsagarria da De-
gurixa horrela ikustea.
Dena zikin dago, jen-

deak zakarra basura
poltsetara sartu beha-
rrean, lurrera botatzen
dute."

Garbiketa hau egite-
ko, kamioi bat eraman-
go dute. "Ez dugu uste
kamioi batekin nahikoa
izango denik, han kamioi
bat eta beste bat ere
betetzeko beste txe-
rrikeria dago. Denetik
dago: zaborrak, ko-
txeak, labadorak..."

Antolatzaileen uste-
tan jendea ez da kontu-
ratzen han uzten duten
zikinkeriaz "Baina bene-
tan, pena ematen du
horrelako leku polita,
hain zikin ikustea."

IHESaren aurkako ihardunaldiak

Bailara mailan IHESa-
ren aurka lan egiteko as-
moz, talde bat eratu da
Arrasaten.

Talde horren lehe-
nengoekintzak astelehe-
nean hasi ziren egiten.
Aste honetan gaixota-
sun horrek sortzen di-
tuen arazoei buruzko hi-
tzaldiak eman dira.

Asteburu honeta-
rako berriz, zapaturako
kale antzerkia egongo
da 6etan Arrasaten eta
gauko 10etan Monte-
rronen Rock kontzertua.
Bukatzeko, domekan
Arrasateko erdiguneko
kaleetan zehar giza ka-
tea egingo da.

OYAR
Zaraia, 4
Tfnoa: 79 15 70

BENGOA
Mertzeria
Durana, 13
Tfnoa: 792100
ARETXABALETA

IMANOL ALTUBE
ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK
Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60
ARETXABALETA

TXIKIA
HAURREN
ERROPAK
ZURE ZAIN
Santa Kurtz, 13
ARETXABALETA



Kurtzebarri eskola saritua

Kurtzebarri eskolako 4. mailako gela batek Abeliño Barriola deklamazio saria irabazi du. Talde honek bere lana "Printze Txikiak" gaitzizenaz aurkeztu zuen.

Saritzat bidaia bi egiteko aukera izango du talde honek: 4 egunetarako bidaia Ipar Euskal Herrira, urriaren 9, 10, 11, eta 12an eta bestea, irailean astebete inguruko bidaia oraindik zehaztu barik dagoena, baina bere hizkuntza propioa indarber-

rritzen saiatzen dabilen herrialde batera.

Beste talde bik ere, euren sariak jaso dituzte. Laugarren eta bigarren mailako taldetxo hauek, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako, "1992ko Zuhaitz eguna" kartel mural lehiaketa irabazi dute. Plaka bat eta liburu sorta izan zen irabazitako saria.

Argazkian irabazle guztiak pozik ikusi daitezke. Ez da gutxiagorako.

Euskararen Eguna 13an

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere, BEINKE Elkarteak ekainaren 13rako Euskararen Eguna antolatu du.

Jaiak egun guztian iraungo du. Eguerdian, herrian publizitatea egite-rakoan euskararen erabileraren zenbatekoa den erakusteko panelak ipiniko dira.

Bazkalostean haurren txanda izango da. Ortzadar taldearekin batera arratsaldean zehar era guztietako jolasak izango dira neska-mutiko guztientzako. "Pertsonaia ezkutuaren jolasa" izeneko lehiaketaren sarienez zozketa egingo da parte hartzaileen artean.

Helduendako ere izango dira jokoak, arratsaldeko seietatik aurrera. Gabean frontoian herri afaria egingo da eta afalostean Saltsamaltsa taldeak alaituko du postrea. Afarira joan gura duenak BEINKEn eman dezake izena. Euskarak ondo pasetako ere balio du.

• Saioa Arando Atxabaltarra, joan zen eguakotxean, arrasaten egin zen Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalerdian, finalerako sailkatu zen. Finala Donostiko Karmelo Balda kiroldegian izango da. Zorionak Saioa, eta ea txapela Atxabaltara ekartzen duzun.

• Lizarra Musika Eskolan datorren ekainaren 15erarte matrikula epea zabalik dago. Izen ematea Musika Eskolan, Otalora 27an, arratsaldeko Setatik 6ak arte.

IRIARTE
Umeen denda



DURANA, 8
Tfnoa: 79 10 96



Basabe poligonoa
A - 15

Tfnoa: 79 34 28



BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

Otalora kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57

ARETXABALETA

UDALETIK

Aurrekontuen sail nagusiak

Aurreko alean, kapi-
tuluka eman genizuen
Udal Aurrekontua. Ora-
ingo honetan sail nugu-
sietan banatuta azalduko
dizuegu. Partida batzuk

falta dira dena osatzeko,
baina argazki orokor be-
zala balio du. Gastu
haundienak azaltzen
dira.



San Migel jaiak prestatzen

Joan zen eguenean 28an, Kultur Etxeko lokaletan, San Migel jaiak prestatzeko herriko kua-drila eta elkarteak elkar-tu ziren. Bertako propo-samen nagusia, jai haue-tarako, tanborrada an-

tolatzea izan zen. He-rriko elkarteak interesa-turik, ahaleginduko dira tanborrada aurrera era-maten.

Hurrengo egunetan berri gehiago izango dugu.

Ikastolen kanpaina

Joan zen eguako-txean, maiatzaren 29an, Hezibideko ikastolek prentsaurrekoa eskaini zuten Arrasateko Mon-terron Jauregion.

Prentsaurrekoaren helburua, ikastolek gaur egun jasaten dabilzan egoera kezkarriaren ondorioz aurrera era-maten ari diren kanpai-niaren berri ematea zen.

Kanpaina honen helburua jendeari egoeraren berri ematea da, eta baita jendea

sentsibilizatzea ere.

Horretarako ekintza desberdinak egingo dira. Lehenengo sinadura bilketa egingo da Buesaren dimisioa eskatu. Horrekin batera lbi-laldia eta Armentian egingo den Araba Euskaraz ekitaldietan jendearen parte hartzea bultzatzuko dute.

Azkenik, kanpaina-ekin bukatzeko, Udale-tan mozioak aurkeztuko dituzte.

- zinegotziek galdutako soldata, dietak, etab 11.201.630'
- Idazkantzako gastu orokorrak (soldatak, mantenimendua, Telefonoa, bidaiak..... 40.781.931
- Udaltzaingoaren gastuak (soldatak, arropak...)..... 13.075.074
- Eskolak eta Ikastetxeen mantenimendua, (garbiketa, argia...).. 22.202.568
- Langileen pentsioak, osasun kontuak..... 4.288.207
- Ongizate sailean (soldatak, diru laguntzak, probreziaren aurkako kanpaina, etxez-etxeko laguntza, drogomenpekotasunaren aurkako ekintzak..... 30.090.643
- Hirigintza eta Zerbitzuak..... 133.905.677
 - Hirigintza 25.689.531
 - Zerbitzuak..... 49.343.794
 - Argia 8.400.000
 - Ura, saneamendua.. 30.860.000
 - Zaborrak batu eta erretzea..... 14.612.352
- Kultura eta Euskera (soldatak, diru laguntzak, festak, Aretxagazeta, lehiaketak.....)..... 68.584.051
- Beste Erakunde batzuei egindako diru aportazioak..... 30.050.000
 - Mankomunitateko kuotak.. 5.317.624
 - Euskalgia 7.221.086
 - Urats-Gain Egoitza..... 17.512.174
- Maileguen interesak eta amortizazioak..... 80.676.783



Egurra lantzen okilen pare

Okila taldea, orain dela urtebete eratu zen Beinkek antolatutako ikastaro baten ondorioz. Ikastaro horretan 12 lagunek eman zuten izena, baita ikastaroa egitea ere. Ikastaroa bukatuta gero 10 bat lagun geratu ziren eta hauek, Beinkek antolatutako ikastaroan ikasitakoa praktikan jarzea erabaki

zuten.

Okila, mokoarekin zuhaitzetan "egurra lantzen" ibiltzen den txoria da, eta egurra lantzeko zaletasunak bultzatuta, lagun talde batek, izen bera jarri zion taldeari.

Talde horren helburua orain egurra lantzen ikastea da, eurek ditonez, oraindik asko

falta zaie ikasteko, baina elkarri lagunduz, poliki-poliki gauza politak egiten hasi dira.

Ekintzak

Lehen aitatutako helburua lortzeko asmoaz, urtean zehar edozein egur moeta lantzen dute: haritza, pagoa, gaztaina...

Lehen urrats hauetan adornorako gauzak egiten hasi dira, eta horrela bakoitzak bere gustoko gauzak egiteko aukera dauka.

Baina egiten dituzten ekintza guzti horiek, denbora pasetako egiten dituzte, ez da negoziarioa. Baina auskalo, enkarguak egiten hasita daude eta.

Aurrera begira

Oraindik taldea nahiko ezezaguna izan arren, laster erakusketa eta ikastaroak antolatzen hasiko dira.

Abuztuko oporren ostean, lehenengo ikastaroa antolatzeko asmoa daukate, eta horretarako ilusio handiarekin dabilta. Ikastaro horrekin jendea egurra lantzen ikastera animatu gura dute, oraindik zaletasunik ez dagoelako.

Hala ere, artikulu hau irakurrita gero, egurra lantzen ikasteko gogo duenak edo Okila taldea hobeto ezagutu gura duenak, taldeak daukan lokalera jo dezake, Nafarroa kalea 2an dagoen lokalera.




Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

LASA AGUILERA
AHOLKULARITZA

Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 72 29 26

ARETXABALETA



LENIZ

LIBURUDENDA


HERRIKO
PLAZA

TFNOA:
791616

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Andoni Zubizarretak 12 urte daroa herritik kanpora. Bere lehen urratsak Almen eta U.D.A taldeetan emanda gero, Bartzelonan daukagu azken urteotan. Atxabaltarrok harro esaten dugu, Zubizarreta telebistan ikustean, gure herriko delá. Aurten oraindik harro egoteko arrazoi gehiago dugu, Europako Koparen irabazle barria da eta. Hori delá eta guzti honen barri emuteko berarekin egon gara berbetan.



Atxabaltako enbajadorea Bartzelonan

• Zer sentitzen da Europako Kopa irabaztean?

• Partidua bukatzen denean pozik jarten zara, baina ez zara konturatzen ondo zer irabazi duzun. Denbora pasetan doan neurrian konturatuaz joaten zara. Datorren urtean edo oportretan gero eta gehiago joango naiz konturatuz zer irabazi dugun. Asimiletako denbora apur bat behar da.

Jendeak ere askotan akordatu eragiten dizu. Kalera urteten duzunean, daukan balioaz konturatzen hasten zara. Futbola gustetan ez zaion jende asko ere pozik ikustean,

horrek ere Europako Koparen inportantzia gogorarazten dizu.

• Pertsonalki zer suposatu du?

• Bueno, klub mailan hori zen falta zen bakarra. Liga, kopa irabazi ditut, orain delá urte batzuk Sevillan Europako Koparen finala galdu egin genuen. Beraz Kopa de Europa guretzat, falta zitzaigun bakarra zen.

Nik gaztetan, telebistan ikusten nituen partidua, eta beste gauza bat iruditzen zitzaidan. Gero norbera hor dagoenean konturatzen da, bere txikitako ilusioa bete egin

delá.

• Bartzelonak euskal jendearendako zerbait berezia dauka. Bakero, Salinas, Txiki, zeu... hor zabiltzatelako. Europako Kopa irabazi zenuenean, guk ere zati bat geurea sentitu genuen...

• Hori apur bat normala da. Alde batetik Bartzelonan jokaketan jende euskaldun asko dago eta beste aldetik, Athletia eta Erreala aurten ez dira oso ondo ibili, ez dute liga eta Kopa irabazteko aukerarik, eta jendeak beti gura du zerbaitekin pozik egon. Horregatik euskaldun gehien dagoen tokira tiratzen dute. Giroa desberdina izango litzateke Erreala edo Athletia aurrean ibiliko balira.

• Hemen Atxabaltan Peña dat daukazu...

• Bai. Gainera oso inportantea izaten da, jendea norberaren atzean dagoela jakitea. Txarto jokatu ezker ere, halako jendea zure atzean ikustea inportantea da. Momentu txarretan horrelako jendea atzean bultzaketan eta animetan ikustek poztasuna ematen du.

• Andoni, gogoratzen zara hasierako garaiekin, U.D.An jubeniletan eta ibiltzen zinean? Zelako oroitzapenak daukazu?

• Ni furbolean beste edozein mutiko bezela hasi nintzen. Beti daukazu zeure ilusioak, baina nik inoiz ez nuen pentsatu horrelako mailara heltzea.

"Peña bat eukitea oso inportantea da, jendea zure atzean dagoela jakitea"

• **Non hasi zinen futboleant?**

• Hasi Almenen, baina gero segituan U.D.Ara joan nintzen.

• **Hasieran aurrelari jokatzen zenuen...**

• Ez, nik beti portero jokatu dut. Nire betiko idoloa Iribar izan da eta horregatik beti portero jokatu izan dut.

Baina urte batean, 12 urterekin edo, futbola utzi eta eskubaloira pasatu nintzen. Denboraldia bukatu zenean Pello Unzueta edo Jesus Martinez Riojak, ez naiz akordetan, futboleant apuntetako esan zidan. Halaxe, Almenen hasi nintzen. Hasieran aurrelari eta kanpo erdian jokatzen nuen, baina hurrengo denboraldian portero hasi nintzen.

• **Noizero etorten zara Atxabaltara?**

• Oso gutxitan. Normalean ez daukat astirik etorteko. Bartzelonako moduko ekipo batean oso denbora gutxi eukiten da libre eta nire moduan selekziara joaten bazara gutxiago. Bestela Bilbon edo Donostian jokatzen dugunean egun pare bat pasetan ditut herrian.

• **Etorten zarenean gainera zer bait egiteko ez?**

• Bai, oso gutxitan izaten dira "viajes de placer", beti zer bait egiteko izaten dut. Gainera etortzen naizenean, beti gustetan zait hona edo hara lagunak ikusten joatea.

• **Herriminik bai?**

• Apur bat bai. Gauzak apur bat disparetan dire-



Gazte mailan Gipuzkoako Txapeldunak, 1976-77 denboraldian.

nean, beti gustetan zaizu zure ambienteant egotea, bai goruntz egiten duzunean eta baita beruntz egiten duzunean ere. Baina hankak lurrean jarri behar dira.

• **Faltan botako duzu hemengo ambientea ezta?**

• Egia esan nik Atxabaltatik 17 urterekin urten nuen eta orain 30 daukat, beraz 13 urtez kanpoan egon naiz. Beraz kanpoko bizi-modua neureganatuta daukat.

Lagunekin ere, gauzak aldatu egiten dira. Poliki-poliki galduaz joaten dira eta normala da, eurekin denbora gutxi egoten naitzelako. Baina, beti gustetan zait etxera heltzea eta batek edo besteak zer egiten duen jakitea.

• **Exilioak noiz arte iraungo du Bartzelona aldean?**

• Ez dakit. Oraindik urte batzuetarako kontratua daukat, baina ezin dutesan

" Hasieran eskubaloian jokatzen nuen, denboraldia bukatu zenean futboleant apuntatzeko animatu zidaten eta horrela hasi nintzen."

zenbat urte egongo naiz bertan, 2, 3 edo 4 urte. Gaur egungo futboleant gatxa da jakitea datozen urteotan zer pasatu daitekeen, are gehiago kontutan hartuta futboleant lesioekin ere edozer gertatu daitekeela. Orain lau urte kontratuekin futboleant aldaketa handiak egon ziren eta hemendik bi urtetara edozeinek daki zer gertatu daitekeen.

• **Azkenik, liga zela ikusten duzu?**

• Gatxa, Real Madrila aurrean dago eta partidu bakarra geratzen da. Gure asmoa orain azkenengo partidua irabaztea da eta Madrili presio guztia pasatzea. Klaru dagoena da Europako Kopa irabazi eta gero beste modu batean hartzen dituzula gauzak.

• **Liga irabazi ezkeror, orduan bai denboraldi borobila ezta?**

• Bai. Oso ekipo gutxi daude liga eta Europako Kopa irabazi dutenak

Jose Mari Sarasua

Oriotik Atxabaltara

• **Non jaio zinen:**

• Orion. Nire etxea, kale baserri etxea zen. Gure aita baserrian jaio zen, baina gero transportera dedikatu zen eta baserriko izakera galduaz joan ginen. Ni jaio nintzenez gure etxea erdi kale, erdi baserrikoa zen.

• **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

• 1962an etorri nintzen, 25 urterekin.

• **Zergatik etorri zinen?**

• Nik Donostin egiten nuen lan, Industrias Españolas izeneko enpresan. Baina nik, gazteri mogimendu batean parte hartzen nuen. Orduan oso momentu ederrak ziren, gazteriaren artean galdera asko egiten ziren, lan askolantegietan... eta lehenbiziko, protestak, huelgak urte haietan hasi ziren, 1960tik aurrera. Nahiz eta sindikatuetan lan egin, urte haietan hasi ginen, kapitalismoak ez zeukala etorkizunik pentzetan. Hori ikusita, beste bide batzuk hartzea pentsatu genuen.

Orduan gero eta garbiago ikusten genuen



kooperatiba sortu behar zela. Momentu hartan, Arrasate eta Atxabaltako jendearen artean enpresa bat sortzeko inizatiba zabaldu zen, baina profesionalen beharrazuten. Arrasateko lagun handi batek nire izena eman eta lanean hasi nintzen.

Erabaki gogorra izan zen, Donostiako taldean oso gustora nengoen eta.

• **Hasieran ze izan zen gehien kostatu zi-**

tzaizuna?

• Jende guztiak euskaraz zekiela eta ez zutela egiten ikusteak. Baina orain eboluzio polita izan du, lehen euskaraz gutxiago egiten zen Atxabaltan.

• **Euskerak ze inpresio egin zizun?**

• Hemengo euskerraren inpresioa zoragarria, badauka gurean erabiltzen ez direnak eta kategoriakoak diren hitzak. Hemengo euskera erabil-

tzen denean zoragarria da, txarrena, hemengo euskeran erderazko hitzak sartzen direnean.

• **Anekdotarik?**

• Etorri berritan, Mertzek, nire emazteak, dendan baratxuriak (berakatzak) eskatu zituen eta baba txuriak eman zizkioten.

• **Ze alde dago zuek ezagututako Aretxabaleta eta oraingoaren artean?**

• Nik alde nagusia aberastasunean ikusten dut. Orduan Atxabalta bizi zen, bizitzeko behar zen minimoa baino pisat gorago. Orain askoz ere aberatsagoak gara, diru asko botatzen da gure kalterako eta kontsumismoan sartutako herria ikusten dut.

• **Ze alde dago zure herriko eta Aretxabaleta jendearen artean?**

• Hango jendea eta Atxabaltakoa diferentek ziren. Hemengo jendea leialagoa konplikazio gutxiagokoz zen. Gainera langilea, jende asko zegoen lanean ez zekiena, baina ikasi eta gero, benetan langile egokiak ziren.

• **Zeure burua atxabaltartzat daukazu?**

• Bai. Donostiako Herreran nengoenean ere oso bertakoa egin nintzen. Hona etorri nintzenez, berehala sentitu nintzen hemengo.

Joan zen zapatuan, maiatzaren 23an Oñatin, Deba Garaiko eskola arteko 3. olinpiadak egin ziren. Bertan 1.400 hurrek hartu zuten parte taldetan banatuta, kirol desberdinetan: eskalada, ur jolasak, arku tiraketa, skate, mountain-bike... Jaiak goizeko 9etatik, arratsaldeko 6ak arte iraun zuten. Egun polita izan zen, hainbeste haur kirol desberdinetan ikustea.

Ekainaren 13an berriz lehenengo aldiz 3. adineko olinpiadak izango dira Atxabaltan. Olinpiada hauen antolatzailea, Deba Garaiko Kirol Zerbitzua izango da.



U.D.A ko bigarren erregionaleko taldeak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen Mundarro taldeari 2 eta 1 irabazita gero.

Inaki Zeziaga aurtengo denboraldian U.D.Ako entrenatzailea izan dena, Arrasatera doa.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako Arantza Fernandez Tourreko karabanan parte hartuko du beste 25 gatzerekin batera.

Deba Garaiko Olinpiadak

Olinpiada hauetan Deba Garaiko 60 urteko gorakoek parte hartuko dute: Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolakoek. Ekintzak kirol-etxean, anexoan eta Ibarra futbol zelaian egingo dira, arratsaldeko 3etatik 7,30ak artean.

Barthartzaile guztien-

tdako ekintzak hiru multzotan banatuko dira, baina ez da izango beharrezkoa joku guztietan parte hartzea. 1. multzoa (kirol-etxean): Floorball-jokua, frisbie, sokakin jokua, arku tiraketa eta igeriketa. 2. multzoan (anexoan): uztaiarekin jokua, globuekin eta baloiarekin. Eta azkenik 3. mul-

tzoan (Ibarran) globo erraldoia, indiaka, trebetasuneko jokuak, dokea eta txantxikua.

Jaiari bukaera emateko, 6etatik 7,30etara jaialdia izango da Saltsamaltza taldearekin. Antolatzaileek egun honekin 3. adineko pertsonak kirola egitera animatu gura dituzte, kirola osasunerako ona dela ikus dezaten.



AZKENENGO
BERRIKUNTZAK

Loramendi, 10
Tfnoa: 79 81 78

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1.º D
Tfnoa: 79 93 55



Sport
SASIAIN

Zaraia, 4
Tfnoa: 79 77 63

Aretxabaleta



Ikusten duzuenez, gaurko irudien artean ezagunen bila ibiltzea alfer-lana da. Hemen ditugun pertsonaiak ez dira atxabaltarrak, ezta gure garaikideak ere. Grabatuan azaltzen direnak, Felipe II. areen armadaren soldaduak dira, gaurko

pertsonaiaren garaikideak. Garaikideak eta lankideak, gure pertsonaiak **Pedro de Echabek**, Flandeseko espainiar armadarako, intendentzia sailean, ziharduen eta.

Baina, nor zen Pedro de Echabe hau? Bada, gure pertsonaia Gellaoko

"Etxabe" baserrian jaio ei zen, XVI. mendeko bigarren zatian, eta, garai hartan ohizkoa zen legez, familia aberatsen artean behintzat, burokraziaren bidea hartu behar izan zuten, baseria maiorazkoen eskuetan geratzen zen eta. Bide "paketsu" hau hartuta, Flandeseko armadaren "Veedor general"-aren "ofiziale" karguan aritu zen; hau da, armadaren hornikuntzaren ardura-dun. Bere ondasunen zerrrenda ikusita, Pedro de Echabek bere karguari zegozkion jantziak erabiltzen zituela esan genezake: zetazko galtzerdi beltzak, ilegurizko es-

kularruak; artilezko txapinak, ... Baina jakina, gure pertsonaia eta Felipe II-aren "Tertzioak" Flandesera ez ziren turismo egitera joan eta, Pedro de Echabe Tilermont hirian zegoela, bertakoek harrapatu eta hil zuten. Hil ondoren, eta ohizkoa zen legez, saldu egin ziren Pedro de Echaberen ondasunak, ateratakoarekin zituen zorrak eta meza batzuk ordainduz. Heriotzaren berria 1590. urtean Bruselatik heldu ziren Atxabaltara, Pedro de Echaberen ondasunen zerrrenda eta salmentarekin batera. Bai zirela zintzoak, bai, Felipe II-aren burokratak.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Ze baserrian dago argazkian agertzen den armarria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Otala)



Aurreko lehiaketaren irabazlea **ENEKO PEREZ RUBIALES** izan da. Zorionak!


Erantzuna:

• Izen-abizenak:

• Helbidea:

• Tfnoa:

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Imanol Iregi.

Bakailao kokotxak txirla eta piperrekin

Lau lagunentzako osagaiak:

- Kilo bat kokotxa
- Txirla bigunak, 200 gr.
- Piper berde bat

Zelan egin:

Lehenengo oliba olioia zartakinara bota, gero berakatza eta berakatza doretan hasten denean sutatik atara olioia hotzitu dadin. Olioia epel dagoenean kokotxak ipini eta bitartean, denbora aprobetxetako, txirlak ipini daitezke zartakinan, zabalduaz joan daitezen. Piperra ere egosi bitartean.

Hori eginda gero, kokotxak, txirlak eta piperra oliotara bota, sutan ipini eta eragiten hasi. Zabaltzen hasten denean sei bat minututan mugitzen euki, eta saltsa larregi sendotu bada txakolin apur bat bota.

TXISTEAK

Ondo konfesetako...

Herriko mutiko zuzenatarikoa ez zen izango. Joan zen konfesatzera. Belaunikatu zenean, abadeak:

- Ondo konfesetako zenbat gauza behar dira?

- Bi.
- Bi? Ea zertzuek diren.
- Abadea eta pekatuak.

BAZKIDE FITXA

IZENA:

HELBIDEA:

KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA:

KUTXA:

TELEFONOA:

Arexagazetako bazkide izan gura baduzu, bialdu gure bulegoetara edo 150 postakutxatilara. Kanpotarrei korreoz bialduko zaie.

KOMIKIA

-Micky eta Paul-

MAIATEAK 27: LANGILE GUZTIOK DUGU GREBA EGITEKO ESKUBIDEA... 62

5 EGUAKOTXA

• Zaraia mendizale taldearen irteera: Ekainak 5, 6 eta 7an gazteekin akanpada.

7 DOMEKA

• Zarai mendi taldearekin: Zaraia mendien garbiketa.

• Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Kanpantzar - Amorebieta - Zeamuri - Barazar. (96 Km).

• Murrukixo mendizale taldearen irteera 9etan Txindokira.

9 MARTIZENA

• Beinke: "Ni euskararen muga?" kanpaina-ren hasiera.

10 EGUAZTENA

• Beinke: Aretxabaletan jakin eta egin soziolinguistika ikastaroa.

13 ZAPATUA

• Beinke: Euskararen eguna eta pertsonai ezkutuaren jolasaren

bukaera.

• 3. adineko Olinpiadak kiroletxean, arratsaldeko 3retatik 7,30etara.

14 DOMEKA

• Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Udana - Azkoitia - Azkarate - Elgoibar - Aretxabaleta. (84 Km).

• Murrukixo mendizale taldearen irteera 9etan: Gatzatik Atxalbaltara (trenbidetik)

17 MARTIZENA

• Beinke: Aretxabaletan jakin eta egin soziolinguistika ikastaroa.

20 ZAPATUA

• Aretxabaletako gaztetxean, gaueko 11etan "Ataude Vacante" Tenerifeko taldearen kontzertua.

• Goizeko 7,30etan Murrukixo mendizale taldearen irteera: Gipuzkoako itzulia 9. etapara.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

• Herriaren erdigunean kokatutako etxea salgai. Deitu: 79 64 93 telefonora.

• Garaje bat salgai, Andra Mari auzunean. Tlfnoa: 79 47 62

• Garaje bat salgai Otalora, 11 kalean. Tlfnoa: 79 47 62

Lana

• Pertsona nagusia zaintzeko andra euskaldun bat behar da Atxabaltan. Dei egin 10etatik 12etara 79 55 02 telefonora.

• Etxeko lanak egin eta ordu batzuetan ume bat zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Interesatuak deitu: 79 65 13 telefonora.

Salerosketak

• "Makario" markako egoera onean dagoen korredorezko bizikleta bat saltzen da. Oso merke. Tlfnoa: 79 97 88

• Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean. Dei egin 79 56 06 telefonora.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT
Audi VW
GARAGE
OSKAR
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARIA TABERNA
GOIZEKO 5,30etatik
ZURE SERBITZUAN
MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA
Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
" EDER "

Karrozeria
mekanikoa

IBARRA S/N
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISENUA
APAINKETA
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

EROSKI
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEAN
Tfno: 79 16 05

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK
IÑAKI
Gipuzkoako plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99
ARETXABALETA

NERIAN
Loradenda
Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

" HERRASTI "
AKEITA ETXEA

CAFES
Brasilena

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

LENITZ UDAL EUSKALTEGIA

UDA IKASTAROAK 92

Ekainaren 29tik Uztailaren 24era arte
5 ordu goizez
Maila guztiak

MATRIKULALDIA:
Ekainaren 8tik zabalik
PREZIOA: 5.400 pezeta
16 urtetik gorakoentzat.

Bulego-orduak:
Goizez: 9:000 - 12.30
Arratsaldez: 3.000 - 7.000

Informazio zehatzagoa:
Durana, 11 (Aretxabaleta)
Fernando Enparantza (Eskorriaza)

Gipuzkoa: bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guziaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián